

ZATIKIAK ETA HAMARTARRAK

Aurreko gaian ikusi zenuen moduan, zenbaki hamartar zehatzak zatiki moduan jarri daitezke.

$$0,1 = \frac{1}{10}$$

$$0,2 = \frac{1}{5}$$

$$0,25 = \frac{1}{4}$$

$$0,5 = \frac{1}{2}$$

Orain, aztertu arretaz eragiketa hauek:

$$\bullet \quad 8 \cdot 0,1 = 8 \cdot \frac{1}{10} = \frac{8}{10} = 8:10 \quad \text{eta} \quad 8:0,1 = 8:\frac{1}{10} = \frac{8 \cdot 10}{1} = 8 \cdot 10$$

$$\bullet \quad 8 \cdot 0,2 = 8 \cdot \frac{1}{5} = \frac{8}{5} = 8:5 \quad \text{eta} \quad 8:0,2 = 8:\frac{1}{5} = \frac{8 \cdot 5}{1} = 8 \cdot 5$$

$$\bullet \quad 8 \cdot 0,25 = 8 \cdot \frac{1}{4} = \frac{8}{4} = 8:4 \quad \text{eta} \quad 8:0,25 = 8:\frac{1}{4} = \frac{8 \cdot 4}{1} = 8 \cdot 4$$

$$\bullet \quad 8 \cdot 0,5 = 8 \cdot \frac{1}{2} = \frac{8}{2} = 8:2 \quad \text{eta} \quad 8:0,5 = 8:\frac{1}{2} = \frac{8 \cdot 2}{1} = 8 \cdot 2$$

Besteak beste, ondorio hauek ateratzen ditugu. Bete hutsuneak:

- Zenbaki bat **0,1ekin biderkatzea**, zenbaki hori **zati** **egitearen** berdina da.
- Zenbaki bat **0,2rekin zatitzea**, zenbaki hori **bider** **egitearen** berdina da.
- Zenbaki bat **0,25ekin** , zenbaki hori **zati 4 egitearen** berdina da.
- Zenbaki bat **ekin zatitzea**, zenbaki hori **bider 2 egitearen** berdina da.

ARIKETA: Ikusitakoa erabiliz, kalkulatu buruz ondoko eragiketak:

a) $100 \cdot 0,1 =$

e) $20:0,1 =$

b) $5:0,2 =$

f) $3 \cdot 0,2 =$

c) $4 \cdot 0,25 =$

g) $4:0,25 =$

d) $7:0,5 =$

h) $12 \cdot 0,5 =$